

PRENTSA AGIRIA

Tubos Reunidos Industrialeko eta Productos Tubulares Trapagako enpresa Batzordeetatik gure ezezko borobila helarazi nahi diogu "Plan Creacion de Valor-transforma 360" deritzon planaren barruan hartutako lehenengo neurriei. Plan hau, Tubos Reunidos Taldeko lehendakariordea den Guillermo Ulaciak aurkeztu zuen eta McKinsey Kontsultoriarekin batera eginda dago.

Administrazio kontseiluak, lan postuak desagerrarazten, 300 milioi € baino gehiagoko zorra murriztu nahi du eta Enpresa Batzordeek, honelako erabakiak, akats larritzat hartzen ditu. Lan postuak murriztuz, langileen lan baldintzak okertuko dira prekarietatea handiagotuz honek dakarren guztiarekin. Enpresa honetan gestio arazo larriak berriro ezin dira errepikatu eta adibide moduan 2007an gertatutakoaz ari gara hitz egiten, non, akzioen berrerozketa eta amortizazioa eman zedin 170 milioi €ko mailegu bat eskatu zen akziodunen artean banatzeko, zorra 200 milioi €tan geratuz. Edo distribuzioa egiten zuen Almesa enpresan emandako desinbertsioa (2010ean 25 milioi € sartu 2017an 2,7 milioi €gatik saltzeko). Edo Inauxaren salmenta, 2016an irabaziak izan zituen Tubos Reunidos Taldeko enpresa bakarra. Gestio mota hau da Tubos Reunidos Industrial zein Productos Tubulares Trapagako egoeraren eraltzule bakarra.

Tubos reunidos **214 milioi €**ko irabaziak izan ditu 2007 eta 2014 artean eta akziodunen artean **244 milioi €** banatu ditu

Proposatzen dituzten lan postuen murrizketa, bai behin behinekoena zein azpikontratena, prekarietatean pausu bat emateko bakarrik balioko du, lan baldintzak kaskartzen eta langileen seguritatea zalantzan jartzen. Azpimagarria iruditzen zaigu 10 hilabete daramagula hitzarmena salatu zenetik eta Zuzendaritzak ez ditu gogo handiak erakutsi hau aldatzeko.

Instituzioei eta bereziki Eusko Jaurlaritzari dei egiten diegu, gure lan postuak mantendu daitezzen eta bizi izan dugun gestio eskasak ez gaitzala agertoki zailago batetan utzi, Euskal industria garrantzitsu batzuekin gertatzen ari den moduan

Balio handiko produktuetan eta, ez prekarietatean, apustu egingo duen politika industrial publiko bat eskatzen dugu, gure industria merkatuen eta inbertsio fondo handien eskuetan ez erortzeko.

Amurrión, 2017ko irailak 27

